

Akordio berriak 1.500 irakasle egonkorren kupo berretsi eta luzatu du

Uztailaren 5ean, ELA, STEE-EILAS eta LAB sindikatuok ituna izenpetu dugu Hezkuntza Sailarekin bitarteko irakasleen egonkortasun-konpromisoa berretsi eta luzatzeko. Akordio honek, ahalbidetuko du alde batetik aurreko itunean ezarritako baldintzak bete dituzten irakasle egonkorrek (gehien-gehienek, beraz) izaera horri eutsi diezaioten gutxienez 2006ko abuztuaren 31 arte eta, bestetik, 1.500 irakasle egonkorren kupo iraunkor eta berriztagarria mantentzea.

Jakina denez, aurreko egonkortasun-itunak 2004ko abuztuaren 31 zuen epe-muga. Beraz, sinatu berri dugun akordioa gauzatzea ezinbestekoa zen gaur egungo bitarteko irakasle egonkorrek izaera hori ez galtzeko. Akordio hau lortu ezean, gaur egungo irakasle egonkor guztiek egonkortasuna galduko lukete gorago aipatutako data horretan.

Hau guztia kontuan harturik, sinatutako akordio honek amaiera eman dio azken egunotan irakasle bitarteko egonkorren artean sorturiko egonezinari, komunikabide zein ikastetxeetan hedaturiko hainbat informazio interesatu eta demagogikok areagotutakoa.

Ituna ondoko puntuetan gauzatu da:

- Egonkortasun konpromisoa 2006ko abuztuaren 31ra arte luzatzen da aurreko akordioan ezarritako baldintza guztiak bete dituzten bitarteko irakasle egonkorrentzat.
- Dena dela, egonkortasun konpromisoak 2006ko abuztuaren 31 baino haratago iraungo du, egun hori baino lehenago zehaztu beharko den irakasle kopuru baterako.
- Egonkortasun konpromisoaren kupo gaur egungo 1.500ean finkatzen da.
- Egonkortasun konpromisoaren izaera estrukturala ziurtatzen da eta, beraz, egonkorren kupoan suertatutako bajak urtero beteko dira.
- Hizkuntza eskakizunei dagokien ezarritako baldintza dela-eta, 2004ko abuztuaren 31an 1HE kreditatzen dutenek zein 55 urtetik gorako guztiek egonkortasuna mantenduko dute.
- Egungo irakasle bitarteko egonkor guztiek (hizkuntza eskakizunak bete ala ez) parte hartuko dute 2004-2005 ikasturte hasierako esleipenetan egonkor moduan, urte osoko lanpostuak bermatuz.
- Hizkuntza eskakizunaren baldintza 2004ko abuztuaren 31n betetzen ez dutenei –hau da, egonkortasun poltsatik aurrerago aterako direnei– aukera bermatzen zaie IRALE programaren barruan euren euskalduntze prozesuan jarraitu ahal izateko, hots, egonkor bezala legokiekeen ibilbidea amaierara arte egiteko, betiere txandak agortu gabe edukita. Hori lortuz gero, noski, egonkortasuna ere bermatuko litzaieke.
- 2. hizkuntza eskakizuna (2HE) ezinbesteko baldintza bilakatzen da hemendik aurrera egonkortasun konpromisora sartu ahal izateko.
- Egonkortasun konpromisoari eustea lotuta dago 2007ko abuztuaren 31 baino lehen HE2 hizkuntza eskakizuna lortzeari. Libre geratuko dira baldintza horretatik egun horretan 55 urtetik gora dituzten irakasle bitarteko egonkorrak.

Oro har, ondo ikusten dugu gai garrantzitsu honetan aurrera emandako urratsa, batez ere Hezkuntza Sailaren hasierako planteamendu gogorrak jakinda. Ondo dago, bereziki, egonkortasun konpromisoaren kupoaren finkapena, beronen iraunaldiaren luzapena eta ezarritako baldintzen betebeharrarekiko malgutasuna. Dударik ez, hau guztia hezkuntza kalitate zein irakasle on lan baldintzen onurarako izango da.

**aurreko
egonkortasun-
akordioak
aurreikusten zuen
iraunaldiaren
amaiera gertu
zelako,
bitarteko
egonkorren artean
sortzen ari zen
egonezinari bukaera
eman dio sinatutako
akordio honek**

irakaskuntza



Gauzak argitzen

Bitarteko irakasleen egonkortasun konpromisoari buruzko akordioaren inguruan sortutako auzia dela-eta, panfleto eta idatzien bidez komunikabide eta ikastetxeetara nahiz gizarte osora zabalduko hainbat informazio ikusita, gai honi behar moduan heltzeko ezinbestekoak diren ondoko zehaztapenak egin nahi ditugu:

- Euskal hezkuntza sistemaren irakasle bitartekoekiko egonkortasun konpromisoa lorpen sindikal historiko bilakatu da, estatu mailan parekorik ez daukana eta hiru sindikatu hauen lanari esker, besteak beste, irabazitakoa.
- Lehendabiziko egonkortasun konpromisotik hona, beronen baldintzek, irakasle funtzionarioekiko parekotasun mailak eta kupoak hobera egin dute argi eta garbi, 2002ko akordioan 1.500 irakasle egonkor lortuz eta aurtengo aurre-akordioa kupo berbera finkatuz.
- Egonkortasun konpromisoa eta beronen finkapenaren oinarri legal bakarra hurrenez hurreneko akordioetan baino ez datza. Hauetan jasotzen dira, ezinbestean, konpromisoaren eskakizunak, baldintzak eta iraunaldiak.
- Irakasle bitartekoen gehiengo zabalak oso ondo baloratu du egonkortasun konpromisoa, baita urteotan zehar garaturiko eboluzioa ere.
- Hizkuntza eskakizunaren derrigortasuna irakasle guztiak nahiz hezkuntza sistema osoa agintzen dituen 1993ko Dekretutik datorkigu. Baldintza hau 1998ko egonkortasun akordioan azaltzen zen jada, hots, konpromisoa beraren jatorritik, eta bertan 2001. urtea ezartzen zen kreditatzeko gehieneko epe-muga. Ondoren, STEE-EILAS, ELA eta LAB sindikatuek 2002an sinaturiko akordioak epe-muga hori luzatu zuen eta honen ondorioz inolako hizkuntza eskakizunik kreditatu ez zuten irakasle bitarteko egonkorrek ez zuten egonkortasuna galdu eta, beraz, baldintza hori betetzeko epea beste urte bitan luzatu zien.
- Akordio hauek izenpetu ez duten sindikatuak dira gatazka gehien sortzen ari direnak. Erdi-egietan zein gezur argiak hedatuz, defendatu beharko lituzketen irakasleen inongo onurarako ez diren istilu larriak ari dira bultzatzen.
- Sindikatu hauek gure %62ko gehiengo sindikala akordio hau legitimatzeko nahikoa ez dela esaten dutenean, guk, aldiz, gogoan daukagu era guztiz objektiboan irakasle guztien kalterako diren beraien %20ko gutxiengo absolutuarekin bermaturiko bestelako neurri batzuk. Portzentaiekin eta gehiengoen euren irizpide eta interpretazio ezberdinek inteligentziaren kontrako atentatu hutsak dira.
- Badirudi ahaztu egiten dutela legeak bermatzen dituela maila bereko hizkuntza ofizial bi eta hezkuntza sistema osoaren eginkizuna eta betebeharra direla bata zein bestearen erabilera normalizatua eta ezagupena. Beraz, euren uestezko hizkuntza diskriminazioan oinarrituriko argudioa, guztiz faltsua izateaz gain, ezin da mantendu gizarte osoaren hizkuntza biak ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidearen gainetik edo kontra.
- Argudiatzen duten errealitate soziolinguistikoa da, hain zuzen ere, euskaraz ikasteko eskaera sozial gero eta zabalagoari erantzutera behartzen duena. Hau oso nabaria eta uko ezina da D ereduaren urteko goranzko bilakaeran, zeini euskal eskola publikoak ezin dion muzin egin; ez eta erabilera politikoak horren gainetik jarri.
- Irakasle guztien egonkortasuna eta bitartekoena bereziki zerbitzua egiten dioten gizartearen hezkuntza beharriari era egokian eta emankorrean erantzuten dieten heinean defenda daitezke soilik. Kontrakoa esatea demagogia hutsa da eta, gainera, printzipiozko kontraesan ikaragarria egonkortasun konpromisoa bere osotasunean kolokan jarriko lukeena.

ELA-Irakaskuntza

48009 BILBAO

Barrainkua, 15
Telef.: 94 403 77 00
Fax: 94 403 77 11
irakasbilbo@elasind.org

20014 DONOSTIA

Kontsuletze, 8
Telef.: 943 00 50 00
Fax: 943 00 50 01
irakasdonostia@elasind.org

01005 GASTEIZ

Manuel Iradier 25
Telef.: 945 15 80 76
Fax: 945 14 10 74
irakasgasteiz@elasind.org

31004 IRUÑEA

Iturralde y Suit s/n
Telef.: 948 00 79 30
Fax: 948 00 79 59
irakasirunea@elasind.org

IRALeri buruzko konpromisoak proposatu eta lortu ditu ELAK

Mahai Sektoariaren uztailaren 5eko bilera berean bitarteko irakasle egonkorrei zein ordezkoei dagozkien IRALeren inguruko proposamen hauek egin zituen ELAK:

1. 2004ko abuztuaren 31 baino lehenago HE1 kreditatua duten bitarteko irakasle egonkorrek, lehentasuna izango dute IRALeren irakastorduen barruko ikastaroetan sartu ahal izateko. Horretarako, beharrezkoak izan daitezkeen berriazko eskaera-epreak irekiko dira.
2. Horrez gain, eta Irakasleen Egonkortasunari buruzko Akordia 2004-2006ren Xedapen Gehigarriaren 2. atalean ezarritakoaren arabera, 2004ko abuztuaren 31rako HE1 kreditatzen ez duelako egonkor izaera galduko duten irakasleek, HE2a lortzea errazte aldera, izaera horri eusten dioten irakasleek dauzkaten liberazio-txanda kopuru berbera izango dute.
3. Hezkuntza Sailak 80ra zabalduko ditu irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioaren 26.g atalean aurreikusitako egonkortasun konpromisorik gabeko irakasleei eskainitako IRALeko urteko plazen kopurua.
4. 2001eko oposizioak zirela-eta, egonkortasun konpromisorik gabeko irakasle batzuek IRALen izan zuten ikasturte osoko liberazio ez ohikoak izaera hori berori izango du: ez ohikoa, ez da, beraz, kontuan hartua izango egindako txanda bezala.

Hezkuntza Sailak, Arrese Sailburuordearen bitartez, 1., 2. eta 4. puntuak bileran bertan onartu ditu; eta adierazi du bestea (3) irailetik aurrera negoziatuko den lan-baldintzen hitzarmen berrian sartuko dela.

irakaskuntza

